


Goi

Goierritarra aldizkaria

385. zenbakia 2010eko uztailak 16



**SEGURAKO
KARKABA**

EHUNMILAK, EKITEKO PREST!



 **garmendiatejas.com**

Nafarroa etorbidea 28, 20200 BEASAIN | T 943 16 10 32 F 943 16 08 42 | garmendia@garmendiatejas.com

Dena
astroago
doan garaian



Gipuzkoa, bizkor

Donostiako Bigarren Ingurabidea

Gipuzkoako errepideak goitik behera aldatuko dituen Donostiako saihsabidea "berria".

Azken belaunaldiko 17 kilometroko autobide honi esker, 40.000 ibilgailuk baino gehiagok ez dute Donostiako saihsabidea igaro beharrik izango, batez ere ibilgailu astunak eta Gipuzkoa zeharkatzen dutenak.

300 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa eta trafikoa kudeatzeko teknologia modernoak zure erosotasuna eta segurtasuna handitzeko.



GIPUZKOA
zurekin, aurrera»



Aitor Sarriegi

Koloreek jartzen omen ziotek gatza bizitzari. Kuriosoa dek. Gure hizkuntzak badik kolore gorriarekin lotura berezi bat. Erderaz rubio esaten dena gorria omen dek guretzat, askotan denboraren joanaren ondorioz belarrian bazterrak joz sartzen zaigun arren. Tabako gorria. Gorria dek odola ere, eta herri honek bazekik tamalez kolore horren berri. Pelota partiduetan rojo ez esateagatik colorado esatea inposatu zuenak ere isur arazi zian makina bat, eta utzi dizkik ondorengoak, esate baterako Lakuan.

Gorria politikoki denok identifikatzen diagu, denok zekiagu zeri buruz ari garen politikan gorriak aipatzean. Esaten ditek, ala, izorrai, faszista, gorria duk odola eta bihotza ezkerrean. Baina azkenaldian beste gorri bat dek inoiz baino gehiago etxera sartu zaiguna. Gure ume garaian arraroa huen norbait Real Madrilekoa izatea ere. Gaur egun umeak Chelseakoak dituk, edo Barçakoak, edo Liverpoollekoak... Reds. Eta ale hau ateratzen denerako Mundial santu hau bukatuta egongo den arren, azken asteotan gorrizale asko ikusi dizkiat herriko tabernetan. Nere gusturako gehiegi, ez diat ukatuko. Batzuk esango ditek Xabi Alonsok jokutzen duelako dela, besteek futbol ona gustatzen zaielako, edo español sentitzen direlako

Ez irabazten ez galtzen ez dakien jeneroa duk

Gorria, edo La Roja. (...)

Aukeran, nahiago Rioja on bat, beltza.

(hau gutxik onartuko ditek, baina praktikan egunero demostratzen ditek, esaterako, hizketan edo erosten duten prentsan). Kaka zaharra.

Ez irabazten ez galtzen ez dakien jeneroa duk Gorria, edo La Roja (izena ere beste selekzio bati lapurtu omen ziotek). Galtzen dutenean beti ditek aitzakiaren bat. Irabazten dutenean kontrakoa gutxiesten ditek. Aukeran, nahiago Rioja on bat, beltza.

Egun hauean lainoetatik jaitsi nauk eta konturatu nauk ze herritan bizi garen, krisi santu hau dela eta gorriak ikusten ari den herria, baina hala ere zirko handi hori bezalakoak diru publikoz zein gure diruz lagundu eta itotzen gaituzten bankuek emandako kredituen kontura mantentzeaz kezkatzen ez den herria. Eta okerrean dek, nazioartean gure selekzioak noizbait parte hartzeko oztoporik nagusienetakoa den Roja horren miseriak mahaira atera arren, askotan zalantza egiten dudala gure selekzioa tartean balitz (eta ez ote likek elastiko gorria eraman behar?) ez ote genukeen guk ere jarrera lotsagarri bera izango galtzean eta irabaztean.

Miseri gorria gurea.



Iñaki Apalategi

Iepa Aitor,

Egualdi gorrie, batenbatek esango likek. Ni ez nauk soziologoa, baina agian bai, guk ere jarrera bera izango genikek. Ala ez, ikusi egin behar. Futbola eta gizarte kontrola. Edozein kirolekin gerta zitekek, askok dioten bezela, baina futbolarekin gertatzen duk, eta beraz, honi heltzen zioagu. Kontua ez duk noraino garen futbolzale, baizik eta noraino baldintzatzen duen futbolak, beste

Faxistek gorria odola eta bihotza

ezkerrean; guk gorria bihotzean

eta ezkerra odoletan.

hainbat gauzek bezela, gure identitatea. Gu ohartu gabe, noski.

Norbaitek esan zidak Espainia Holanda, Alemania, Brasil... baina gertuago sentitzea normala dela, eta nik baietz esan zioat. Basagoiti Lula da Silva baino gertuago sentitzea ere normala dela, hala zegok egon. Baina hortik bietatik bati arrakasta opatzekotan nori opa aukeratzean, garbi diat nere aukera ez dela Madriladarraren aldekoa. Bai bai, madrildarra duk, nahiz eta hanka Athleticen kamisetarekin hautsi. Gorri zuria beraz, zuri-gorria beharrean.

Faxistek gorria odola eta bihotza ezkerrean; guk gorria bihotzean eta ezkerra odoletan. Eta falangeak behatzetan. To!

GOIERRITARRA diruz laguntzen duten erakundeak:

Altzaga, Arama, Itsasondo eta Legorretakoko udalak



Gipuzkoako Foru Aldundia

Goi
Goierritarra aldizkaria

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L:
Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albusu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística

Futbolak mundua konkistatua du,
Euskal Herria barne. Denok makurtu
gara bere diktadurapean.



Rufino Iraola Garmendia

Zertaz idatzi futbolaren ‘diktadurapean’?

Ezagutzen dut adiskide bat, ez oso bertsozalea –batere ez, esango nuke– eta bertsolaritzaren boom handienaren garaian hala esaten zidan: «Orain, komuneko tapa altxatu eta hura ere bertsotan hasten duk». Beste behin, horren kontrapuntu gisa edo, bertsolari batek esan zidan ez zitzaiola batere zuzena iruditzen euskal kirol nazionalizat pilotat hartzea. Hura ere ez da pilotazalea. Konplexutasun gutxikoa, sinpleegia, irizten dio pilota-jokoari; adibidez, futbolarekin konparatuta.

Ni, berriz, ez naiz izan oso futbolzalea. Baina oraintxe beldur naiz ez ote naizen zaletuko, ikusirik gaur egun zenbaterainokoa den futbolarekiko dependentzia. Futbolak mundua konkistatua du, Euskal Herria barne. Denok makurtu gara bere diktadurapean. Ez dakit zerekin alderatu: erlijioarekin edo drogarekin, ala bien arteko nahasketarekin. Sortzen duen katarsi kolektibo hori morbosoa iruditzen zait, arraiatik pasatzen dena.

Nolanahi ere, komunikabideen babes eta eraginik gabe, futbolak ez zukeen horrenbesteko arrakasta eta hedapenik lortuko. Euskal Herrian bertan, urrutira joan gabe, zenbat ordu irratia eta telebistan eta zenbat orrialde prentsa idatzian eskaintzen ote zaizkio futbolari?

Eta Mundialera jo aurretik, Realari buruz mintzatu nahi nuke. Igotzeko posibilitateak egiaztatzen ari ziren heinean eta igo ondoren, egunkari batzuek eman dioten bonboa neurritz kanpoko izan da: egunero sei/zortzi orrialde gertakari horri eskainiak, portada eta kontraportadak barne. Irratia eta telebista ere ez dira atzean gelditu. Gero, Arantzazuko zeremonia, eta Gipuzkoan barrena txangoa. ‘Arantzazu’ aldizkariak ere kolaboratu du: Realeko kapitainari eginiko elkarrizketa luzea dakar azkeneko aleak, portada osoa hartzen duen argazkiarekin batera.

Mundialaren kasuan, Realagatik esan dugun guztia milarekin biderkatu behar da. Bila hasten bazara, edozein ordutan aurkituko duzu Mundialari buruzko programa. Jakina, hainbeste hitz egin beharrak, azkenerako, txorakeriez mintzatzea dakar.

Hortik dator, nire ustez, Alemaniako olagarroaren historia xelebre hori. Jainkoagan sinestea zaila dela esango dute gero! Horrelako xelebrekeriak entzunda, ez sinestea iruditzen zait zaila niri.

Mundialak hartu duen bolumena ikusita, herriaren opioztat jotzeko modukoa da futbola. Are gehiago Espainiaren kasuan. Non dira, bada, lau mila langabetu horiek? Zertan dira, orain, zergen igoera eta beste hainbat neurri antisozial? Zer gertatuko da jendea amets horretatik esnatzen denean? Borrokarako gogo gehiagorekin esnatuko dela? Baliteke, baina duda egiten dut.

Espainiako toki askotan jendetzak atera dira kalera, selekzioaren garaipena ospatzera. Badaukatzat zalantzatxo bat: ez dut garbi ikusten jendea Espainiako selekzioarekin ala selekzio honekin, mutil hauekin, identifikatzen den. Izan ere, koloreak kolore, mutil jatorrak ematen dute. Futbolean oso ondo jokatzen dute, eta ikusi ditut hemengo abertzaleak ere txaloka, baina jokoari jotzen zioten txalo.

Kalera irteteko kontu horretan, Euskal Herria –beharbada Iruña kenduta– salbuespena izan da. Ez dugu ikusi Donostia eta Bilboko irudirik. Horrek dezenteri emango zien zer pentsatua. Ikusi ditugu Iniesta edo Villaren bizilagunak ospakizunetan. Ez digute erakutsi Tolosako irudirik; ez nahi ez zutelako, irudirik ez zegoelako baizik. Baina nago intimitatean jende askok ospatu duela Alonsoren herrian ere. Dena esateko, medioek, herri bezala, ignoratu egin gaituzte. Katalunian, sikiera, inkesta egin dute, Espainia ala Holandak irabaztea nahi duten galdezka. Hemen ezertxo ere. Han gehienak Espainiaren alde azaldu dira. Beldur ote ziren hemen alderantzizkoa ateratzeko?

Dena dela, zoro-festa hau lehenbailehen amaituko ahal da. Eta aditu gehienek ustez, onurak ekarriko dizkio Mundialak Espainiari: ekonomian, irudi kontuan, ezaupide aldetik, turismo-arloan, etab. Espainiari on egiten badio, guri ere zerbait iritsiko ahal zaigu, oraingoz behintzat, batzuk borondatez eta besteak gogoaren kontra, estatu horretako hiritarrak baikara.

P.D. Artikulu hau uztailaren 10ean, finalaren bezperan, idatzia dago.



kutxa

Asma dezagun geroa

REPSOL



KONTRATATU REPSOL-EN GASA ETA BETE ZAITEZ ENERGIAZ

Moderno, eroso, merkea eta etengabeko eta mugagabeko hornikuntza duena; gozatu berogailurako, ur berorako eta sukalderako nahi duzun guztietan etxean gasa edukitzearen abantailez. Eta bete zaitez energiaz Repsol-en gasarekin.



REPSOLGAS

Kontratatu orain **Repsol Seguran**
eta sar zaitez **honelako 10 sariren** zozketan:

ETXERAKO GAS ETA BEROGAILU
INSTALAZIOA
DOAN

Eta orain ez duzu alta eskubiderik ordaintzen
¡AURREZTU 212€ -RAINO!

Deitu eta informa zaitez hemen
901 100 125

Alta eskubideak eta, behar izanez gero, hartunea barne ditu. Eskubide horien balioa eta beharra aldatu egingo da tokian-tokian indarrean dagoen legediaren arabera. Eskaintza geografikoki mugatuta dago sare lursailaren parean duten etxebizitzetara eta instalazio berrien aldetara. Aurrekontua 2010eko ekainaren 21etik irailaren 30era bitartean eskatu eta gasaren alta 2010eko azaroaren 30a baino lehen dutenentzat balio du sustapenak. 7,20 €-ko fiantza bezeroak ordaindu behar du. Repsol-ek bezero saridun bakoitzak bere gas eta berogailu instalazioagatik ordaindu duen diru kopuru osoa ordainduko dio bezeroari, instalazioa Repsol-en lankide baimendun batek egin badu. Notarioareneko oinarriak, eskuragai Repsol Butano-n (Jose Abascal kalea 4, 6. oina. 28003 Madril).

Amundarainen, 'jaboiak' ez du garbitzen!

Zaldibia eta Ordizia artean kokatzen den Amundarain errekek, kalte larriak jasan ditu orain bi aste, Bilore lantegi instalazioetatik atera den 'likido beltz' batek apar ugari sortu duelako eta ondorioz ehunka amuarrain eta ezkailu hilik agertu dira, baita hainbat aingira ere. Horixe da begibistan ikusi dena, baina erreka-ren ekosistemari sortutako kalteak oso larriak izango direlakoan gaude. Gainera ez da lehenengo aldia hau gertatzen dela, nahiz eta aspalditik Bilore jaboi lantegia itxita izan.

Edozein ibaia edo erreka-tan horrelako kutsadura gertatzea oso larria da, baina are gehiago Amundarainen, zergatik? Batetik, aspalditik Zaldibiako herritarrek amuarrainak zaintzen saiatu direlako eta bestetik, erreka hori Natura 2000 europar sareko naturgunea delako, Oria Garaiko Garrantzi Komunitarioko Lekuaren zati, hain zuzen. Gainera babes figura hori, natur eremu batek duen balioarengatik izan dezakeen babes figurarik garaienetakoa da.

Natura 2000 Sarea Europa mailako sare ekologikoa da eta horren helburu nagusia Europar Batasuneko aniztasun biologikoa edo biodibertsitatea kontserbatzea da. Amundarain errekan garrantzizko elementuak dira, besteak beste, muturluze piri-narra eta bisoi europarra, biak ala biak, desagertzeko zorian daudenak.

Justu kutsadura gertatu zen astean Ordizian ospatu zen partaidetza tailerra Oria Garaiko naturgunea Kontserbazio Bereziko Lekua izendatzeko neurriak proposatzeko



eta Landarlan elkarteak bertan parte hartu zuen. Oraindik orain prozesu hori zabalik dagoenez gero, Amundarain errekan horrelako kutsadurik berriro ez gertatzeko behar

diren neurri guztiak hartzeko jadanik eskatu diogu Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailari.

Ia ba hau azken kutsadura gertaera den!

Bilore lantegi instalazioetatik atera den 'likido beltz' batek apar ugari sortu du eta ondorioz ehunka amuarrain eta ezkailu hilik agertu dira, baita hainbat aingira ere.

JAKIN BEHARREKOAK

"II Universidad Verde de Verano" Beire (Nafarroa) uztailak 29tik abuztuak 1. mugimendu berdeko ekin-tzaileak, era guztietako ekologistak, ONG, elkarte eta abarren bilkura. Hitzaldiak, tailerrak, eztabaida, informazioa, formakuntza... Aurtengo gai nagusia: udal politika berdea. www.universidadverde.es

Antoine Abbadie jaio zela 200 aurten beteko dira. Zientzialari ospetsua eta euskaltzalea. Hainbat arlo landu zituen bere bizitzan zehar: geologia, historia naturala, geografia, arkeologia, astronomia... Agustín Zahorekin batera euskal gramatika liburu batean bildu zuen eta Lore Jokoak Kultur Jardunaldiak antolatu zituen. Zientzia Akademiako Antoine Abbadia Fundazioak erakusketak, tailerrak eta hitzaldiak antolatu ditu bere berri emateko, Hendaia-ko gazteluan.

Euskadiko Bioaniztasun Zentro-Madariaga dorretxeko aldi baterako erakusketa berria. 'Bioaniztasuna 2010' dohako erakusketak espezie inbaditzaileei, mehatxatutako ekosistemei, aldaketa globalari edo aniztasun genetikaren galerari erreparatzeko, besteak beste. Zentroko beste jarduerak batzuk ere eskainiko ditu uztailaren: tailerrak eta gidatutako ibilaldia ornitologikoak, zetazeoak ikusteko txangoak, biotailerrak eta gymkana familiarrak, besteak beste.

 **landarlan**
ingurumen taldea

Landarlan taldeak egindako orrialdea. Taldean parte hartu, gairen bat aportatu edo albigar bat bidali nahi baduzu:
☎ 943161244 landarlan@yahoo.es

Langile autonomoak eta langabezia

Langabezi egoeran aurkitzen diren autonomoen babesarautzea langile autonomoen espaldetik egin duten eskaera izan da. 2007. urtean indarrean sartu zen Langile Autonomoen Estatuto-legean aurkitu genitzake honi buruzko lehen aipamenak. Bertan gobernuak, langile autonomoen elkarte esanguratsuenekin batera eta beti ere sistemaren iraunkortasun eta jasankortasun printzipioetan oinarrituz, lege berri bat egiteko konpromisoa hartzen zuen bere gain.

Harira, esan, Lege Proiektua onartua izan zela 2010. urteko otsailean eta badirudi ahailegin guztiak egingo direla 2011. urteko urtariletik aurrera sistema berria martxan jar dadin.

Hauetxek lirake babes sistema berri honen atalik aipagarrienak:

Nork izango du babesa?

Behin behineko nahiz behin betiko lanuzte egoeran dauden autonomoen izango dute babesa. Ondorengoak hain zuzen ere:

- ✗ Arrazoi ekonomikoak direla eta lana utzi dutenak (baldintza, azken urtean, sarreraren %40a baino gehiagoko galerak izatea da edota %30 eko galerak azken bi urtetan).
- ✗ Indarrez aktibitatea utzi behar izan dutenak.
- ✗ Baimen administratiboa

galtzeagatik lana utzi dutenak.

- ✗ Genero indarkeriagatik lan autonomoa utzi dutenak.
- ✗ Dibortzioagatik bere bikotearen autonomo laguntzaile izaera galdu dutenak.

Kasuan kasu, legeak zein dokumentuen bidez adierazi daitekeen egoera bakoitza arautu du.

Zein babes jasoko dute?

Alde batetik laguntza ekonomikoa eta bestetik Gizarte Segurantzara kotizazioak enplegu erakundearen gain izango dira hauek.

Baldintzak

- ✗ Gizarte asegurantzan altan egotea.
- ✗ Lehenago aipaturiko lanuzte egoeraren batean aurkitzea.
- ✗ Gutxiengo kotizazio epea beteta edukitzea.
- ✗ Gizarte Segurantzako ordainketetan egunean egotea.

Ordainketek dagokienez, autonomoetako oinarriaren %1,5-a ordainduko da langabezi egoeran babesagatik.

Iraupena

Langabeziaren babeserako kotizatutako epeen arabera iraupena izango du laguntzak: 12 hilabetetan kotizatu behar da gutxienez 2 hilabetetako langabezi eskubidea izateko eta 6 hilabetez jaso ahal izango da gehienez, honetara-

ko 25 hilabete edo gehiagoko kotizazioak bildu beharko direlarik.

Zenbatekoa

Laguntzaren zenbatekoari dagokionez, oinarri erregulatzailearen (azken 12 hilabeteko kotizazio oinarrien media) %70-a kobratuko da laguntzak dirauen bitartean. (gehienez esan bezala 6 hilabete). 60-64 urte bitarteko autonomoen, arau bereziak izango dituzte, gehienez 9 hilabete eta gutxienez 3 kobratuko dituzte).

Mugak muga, aurrerapauso

Langile autonomoen eskubideen babesean aurrerapauso bat dugu lege proiektu hau dudarik gabe. Hala eta guztiz ere indarrean sartu aurretik arauaren kontrako lehen ahotsak ere entzun dira, hala nola, besteren kontura lan egiten duten langileak langabezi egoeran daudela azaltzeko dituzten baldintzekin alderatuz askoz gogorragoak direla autonomoen kasuan, gehienez 6 hilabete kobratu daitezke, besteren kontura lanean ari direnek 24 hilabetetako langabezi laguntza dutenean...

Mugak muga, autonomoen babes-sistemak erronka garrantzitsu bat du bere aurrean. Sistemaren arrakastak, autonomoen era bolondresean sistemara atxikitzen diren edo ezean ikusiko da.



Pello Barandiaran
Gertu aholkularitza
Beasain

Langile autonomoen eskubideen babesean aurrerapauso bat dugu lege proiektu hau dudarik gabe. Hala eta guztiz ere indarrean sartu aurretik arauaren kontrako lehen ahotsak ere entzun dira.

ZAHARRA • BERRI IGELTSEKITA ETA ERAIKUNTZA

A. Almeida
620 32 62 92
943 18 03 72
aiakoerrota@terra.es
ATAUN



Eraikuntzak
Gremioen koordinaketa
Erreforma orokorrak
Teilatuak

SOLOZABAL AUTO-ESKOLA

Mota guztietako gida-baimenak
Teorikoa 5 egunetan
CAP baimen profesionala

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76

Denetik (XXXIX)

Maizpide euskaltegia

“Eta ni galdetzen naiz: orain zer egin behar dugu?”

Zer egin behar dugun? Hasteko, “ni galdetzen naiz” bezalako egiturarik ez erabili! Duela urte dezente ezinezkoa zen horrelakorik entzutea kalean, baina gaur egun ez dira gutxi hitzetik hortzera erabiltzen duten gaztetxoak eta ez hain gaztetxoak! Modu txukuna aski ezaguna da, lagunok:

- ✓ *Eta bauxe galdetzen diot neure buruari: orain ze kristo/demontre egin behar dugu? (egokia)*
- ✗ *Eta ni galdetzen naiz: orain ze kristo/demontre egin behar dugu? (desegokia)*
- ✓ *Neska horrek bere burua bota zuen leibotik behera eta txiki-txiki eginda geratu zen. (egokia)*
- ✗ *Neska hori bota egin zen leibotik eta fosfatina geratu zen. (desegokia)*

Hori bai, burua ondo erabili behar dugu ondorengoak bezalakoak ez esateko:

- ✗ *Zuk zure burua ondo zaindu, nik nirea zainduko dut eta! (desegokia)*
- ✓ *Zuk zeure burua ondo zaindu, nik neurea zainduko dut eta! (egokia)*
- ✗ *Euskaldunok geure buruak ondo zaintzen omen ditugu (desegokia)*
- ✓ *Euskaldunok geure burua ondo zaintzen omen dugu. (egokia)*

Halere, “buru” hitza ez dugu beti erabiliko! Badira beste molde batzuk bihurkaritasuna adierazteko, nahiz eta horiek ere asko-

tan zuzen ez erabili. Erreparatu adibideei:

- ✗ *Amatxo, prakak jantzi naiz! Lagunduko al didazu blusaren atzealdeko botoiak lotzen? (desegokia)*
- ✓ *Amatxo, prakak jantzi ditut! Lagunduko al didazu blusaren atzealdeko botoiak lotzen? (egokia)*
- ✓ *Ene, Saioa, bakar-bakarrik jantzi zara eta! (egokia)*

Burutu

Aurreko batean goiko aditzari buruzko zer edo zer aipatu genuela uste dugu, baina gaurko “protagonista” burua denez, ez legoke batere gaizki orduan esandakoa gogoraraztea: **bukatu, amaitu** aditzen pareko dugu... eta ez **egin** edo **gauzaturena**!

- ✓ *Lana burutu (=bukatu) gabe alde egin buen, Matias! Beraz, gaur emango diok lanari akabera! (egokia)*
- ✗ *Bileratxo bat burutuko dinagu zuzendariarekin, Marisa! (desegokia)*
- ✓ *Bileratxo bat egingo dinagu zuzendariarekin, Marisa! (egokia)*



Donatok ez ahal du bere buruaz beste egingo horrelako lankidea ondoan izanda!

ZUZENDU, BEHAR IZANEZ GERO...

1. Jesus, Maria eta Joxe! Gure Iñaxik ez du agindutako lana berehalakoan burutuko!
2. Iñaxik eskuak garbitu beharko ditu lana burututakoan!
3. Donato, lana burutzen duan bitartean isilik egon hadi... eta hire buruaz arduratu! (Iñaxik esana)

OHARRA: denak zuzenak, azkena izan ezik (*Donato, lanean ari haizen bitartean isilik egon hadi... eta heure buruaz arduratu!* behar du).

Iñautsi Hartz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO 602 Zbk. KOLEGIATUA

HAURREN ETA HELDUEN ODONTOLOGIA OROKORRA
RADIOGRAFIA PANORAMIKOA ETA ZEFALOMETRIKOA
ODONTOLOGIA ESTETIKOA (ZURIKETA)
KIRURGIA
ORTODONTZIA - PERIODONTZIA

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28

ondoeta

GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK

E-mail: ondoeta@ondoeta.com www.ondoeta.com
☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxe: 943 88 08 72
201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA



Ia 400 korrikalarik parte hartuko dute
168 eta 88 kilometrotako mendi lasterketetan

Ehunmilak-en ordua


Uztailaren 16an, arratsaldeko 6etan eta gaueko 11etan, 168 kilometroko Euskal Herriko ultratrail eta 88 kilometroko Goierriko Bi Handiak traila abiatuko dira Beasaingo Loinazko San Martin plazatik. 387 korrikalarirekin batera, Arrastaka Mendiko Taldeko antolatzaileekin eta 1.500 bolontarioek ere badute erronka.

Iritsi da egun handia. Iritsi da uztailaren 16a. Arratsaldeko 6etan, Gipuzkoako mendietan barrena 168 km. egiteko prest dauden 258 korrikalari abiatuko dira Beasaingo Loinazko San Martin plazatik. Goierritarrak 15 izango dira.

Gaueko 11etan berriz, Beasain, Txindoki eta Aizkorri uztartuko dituen 88 km.-ko ibilbideari ekingo diote beste 129 korrikalarik. 27 izango dira goierritarrak.

Ehunmilak-eko lehenengo korrikalariak, hurrengo egunean, uztailaren 17ko arratsaldeko 4ak aldera iritsiko direla aurreikusten dute Arrastaka Mendi Taldeko antolatzaileek. Ehunmilak probaren 98. kilometroan, bi lasterketek bat egingo dute.

Bi lasterketa horiek antolatzen, buru-belarri ari dira Arrastakakoak, eta baita lasterketa pasatzen den Gipuzkoako herri ezberdinetako 1.500 boluntario ere. Eguraldi iragarpenek diotenez, eguraldia lagun izango dute guztiek ere.



Ehunmilak, Euskal Herriko ultratrail: 168 Km Gipuzkoako mendietan

Mendiz mendi Goierri, Tolosaldea, Urola-kosta eta Urola-Garaia eskualdeak zeharkatuko ditu. Ibilbidea Gipuzkoa barneko leku dotoreenetatik igaroko da, pagadi eta hariztietatik barrena Aralar eta Aizkorriko parke naturala sartuz. Era berean, inguruko gailurrik garaienak igoko dira. Goierriko eskualdean Txindoki (1.346), Ganbo (1.402) eta Aizkorri (1.528), Urola-Kostan Erlo (1.026), Urola-Garaian Izazpi (967) eta Ernio (1.075) Tolosaldean.

Irteera eta helmuga

Ostiralean, uztailaren 16an, arratsaldeko 6etan aterako dira lasaterkariak, irteera eta helmuga gune izango den Beasaingo udaletxe aurretik. Lehen partaideak larunbatean arratsaldeko 4etatik aurrera helmugaratzen hastea aurreikusten dute antolatzaileek. Helmugaratzeko epea, berri, igandean arratsaldeko 6etan bukatzen da.



Tokia	Km	Alt.	Gehieneko denbora
Zumarraga	20	350m	5h00
Azpeitia	53	80m	15h00
Tolosa	77	88m	22h00
Larraitz	98	675m	28h00
Lizarrusti	115	621m	33h00
Etxegarate	130	658m	37h00
Oazurtza	148	741m	42h00
Mutiloa	158	240m	45h00
Beasain	168	160m	48h00

Kronometraje elektronikoa eta horniketa

Bidean 16 kronometraje elektriko gune pasa beharko dituzte kirolariak. Jan edanarako horniketa postuak ere ugari izango dituzte: Zumarraga-Urretxu (20.Km-a), Elosua (29.Km-a), Madarixa (43.Km-a), Azpeitia (53.Km-a), Zelatun (66.Km-a), Jazkue gaina (87.Km-a), Amezket


(95.Km-a), Lizarrusti (115.Km-a), San Adrian (139.Km-a), Oazurtza (148.Km-a) eta Mutiloa (158.Km-a). Haez gain horniketa likidorako soilik Mandubian (10.Km-a) eta Ganbon (106.Km-a) izango dute aukera.

Bi horniketa gune berezi ere izango dituzte: Tolosan (77.Km-a) eta Etxegaraten (130.Km-a). Bertan jan eta edanaz gain horniketa osatuagoa izango dute lasterkariak, poltsa jasotzeko eta lo egiteko aukera ere eskainiko zaie eta Tolosan, gainera, dutxatzeko aukera ere izango dute.




Ehunmilak partehartzaile goierritarrak

Aitzol Arruabarrena (Lazkao)
Jose Javier Bujeda (Beasain)
Joao Carlos De Almeida (Beasain)
Mikel Estala (Lazkao)
Aritz Garmendia (Ordizia)
Joxean Gorostidi (Ormaiztegui)
Xabier Irazustabarrena (Zaldibia)
Aimar Lizarazu (Idiazabal)
Carlos Moran (Zegama)
Guillermo Pinillos (Zegama)
Imanol Rezola (Beasain)
Gorka Sasieta (Ezkio-Itsaso)
Jaione Sasieta (Ezkio-Itsaso)
Aritz Ugarte (Idiazabal)
Koldo Urrestarazu (Lazkao)



Arrastaka mendi elkartekoek etapetan egin zuten ehunmilak lasterketako ibilbidea. Ordungoak dira argazkiak.





G2handiak, Goierri trail, 88Km-ko proba 'laburra'

Goierri eskualdea hartuko du lasterketa 'laburra'. 88 kilometro-ak osatzeko, Beasaindik abiatu eta Aralar eta Aizkorri mendilerroetan barrena ibiliko dira korrikalariak. Txindoki, Ganbo eta Aizkorri igo beharko dituzte Beasaina itzuli aurretik. 129 korrikalarik eman dute izena. Lasterketa honetarako goierritar gehiagoko animatu dira. Bi Handiak-en 27 goierritarrek hartuko dute parte eta Ehunmilak-en, 15ek.

Irteera uztailaren 16an, ostiralean, gaueko 11etan izango dute Beasaingo San Martin plazatik. Gehienez 22 orduko epea dute korrikalariak ibilbidea osatzeko. Lehengoak larunbat goizean Beasaingo helmugan izatea espero da. Horniketa eta kontrol guneak lasterketa luzearen 2. zatiko berak izango dituzte kirolariak.

G2Handiak partehartzaile goierritarrak

Jose Ignacio Agirre (Beasain)
 Ekain Alberdi (Ormaiztegi)
 Iñaki Amundarain (Ormaiztegi)
 Gorka Argaz (Ordizia)
 Peio Arroyo (Beasain)
 Eneko Barandiaran (Ordizia)
 Andoni Barandiaran (Lazkao)
 Saioa Bastida (Zegama)
 Elena Calvillo (Beasain)
 Jose Manuel Barandiaran (Beasain)
 Oihan Galparsoro (Ataun)
 Roberto Garcia (Ordizia)
 Aitor Garmendia (Beasain)
 Jon Garmendia (Beasain)
 Asier Goñi (Beasain)
 Xabier Irastorza (Zaldibia)
 Martin Irizar (Beasain)
 Ioseba Izaguirre (Ordizia)
 Asier Landa (Ordizia)
 Xabier Larrion (Beasain)
 Xabier Leon (Lazkao)
 Adur Mendizabal (Zaldibia)
 Mikel Mujika (Beasain)
 Iker San Sebastian (Lazkao)
 Xabier Iurrebaso (Beasain)
 Harkaitz Zubeldia (Lazkao)
 Iñaki Zubeldia (Beasain)



Lasterketa bat baino gehiago

Ordu asko iraungo dituzte bi lasterketek eta korrikalariak banan-banan iritsiko dira helmugara. Antolatzaileek jai giroan hartu nahi dituzte korrikalariak eta horretarako, ekintza ezberdinak antolatu dituzte Beasainen bertan, Nazioen Mundua autodeterminazio eskubidearen herri ekimenarekin elkarlanean. Jarraian duzue, lasterketari dagozkion eta gainerako ekintzei dagozkien ordutegiak.

Uztailak 15, osteguna:

17:00etatik 20:00etara: Ehunmilak / G2 handiak. Dorsalak jasotzea. Gernika Pasealekuko frontoian.

Uztailak 16, ostirala:

10:00etatik 13:00etara: Ehunmilak / G2 handiak. Dorsalak jasotzea. Gernika Pasealekuko frontoian.

18:00etan: Ehunmilak. Lasterketaren irteera. Loinazko San Martin plazan.

19:00etan: Buruhandiak eta txistulariak.

23:00etan: G2 handiak. Lasterketaren irteera. Loinazko San Martin plazan.

Uztailak 17, larunbata:

10:00etan: Iruñeko joaldunak Antzizar auzotik herrigunera.

12:00etan: Trikiti kalejira Ezkiaga auzoraino.

16:00ak aldera Ehunmilak. Probaren lehen korrikalariaren helmugaratzea. Loinazko San Martin plazan.

17:00etan: Patata tortila lehiaketa. Ondoren Txotx eta pintxo jana plazapean.

18:30ean: Aurtzaka eta Iruñako fanfarrearen kalejira Antzizar auzotik herrigunera.

20:00etan: Musika eskolako bost pop taldeen emanaldia Gernika pasealekuan.

Uztailak 18, igandea:

18:00etan: Ehunmilak / G2h. Sari ematea. Loinazko San Martin plazan.

Gorka eta Jaione Sasieta anai-arrebak: Ehunmilak erronka

Ehun miliako lasterketaren bat antolatzen ari zirela jakin bezain laster, "hori ere egin beharko dugu!" esan eta pentsatu zuten Ezkio-Itsasoko Sasieta anai-arrebek. Izena eman aurretik, Gorka Azkaraterekin batera ibilbidea egin bazuten ere, ez zuten zalantza gehiegirik eduki. Uztailaren 16an, arratsaldeko 6etan, Beasaingo irteera puntuan izango dira. Helburua, igandean, gosaltzerako, etxean izatea.

Zegamarrek Zegama-Aizkorri mendi maratonia antolatu zutenean, "astakeria" iruditu zitzaigun. Eta orain, "astakeria" handiagoarekin etorri dira beasaindarrak.

Jaione: Ohitzen hasi gara. Beasaindarrak bi proposamen berri mahai gainean jarri eta zuek handiena aukeratu duzue.

Jaione: Handia hartu eta kitto.

Gorka: Norbaitek esan zigun antolatzen hasi zirela eta berehala esan genuen: egin beharko dugu! Eta jakina, behin hasiz gero, handia.

Orain arte horrelako proba luzerik egin al duzue?

Jaione: Egin dugun luzeena, Hiru Handiak izan da, 100 kilometrokoa. Piriniotan bat luzeagoa egin genuen. Kilometro ez zen hain luzea baina 22 ordu ibili ginen korrika.

Gorka: Anetoko itzulia ere egin dugu.

Ehunmillak-en zenbat ordu kalkulatu duzue?

Jaione: Ez dakit. Kalkulatu hasten zara baina ez daukazu erreferentziarik.

Gorka: Orain arte egin ditugunetan, gau bakarra pasatu dugu. Oraingoan ezberdintasuna da, kasi seguru, bigarren gauak ere harrapatu egingo gaituela.

Lo egiteko asmorik?

Gorka: Ikusi egin behar, nola goazen.

Jaione: Lorik ez dut uste egingo dugunik.

Tolosan eta Etxegaraten daukazu lo lekua.

Gorka: Etxegaraten behar bada komeniko da pixka batean etzanda egon eta atseden hartzea.

Ibilbidea egingo duzue.

Jaione: Urrian egin genuen. Lo egin genuen, pixka bat behintzat. Gogorra da. Askok entrenatu gabe egin genuen. Gorka Azkaraterekin egin



Gorka Azkaraterekin batera, Jaione eta Gorka Sasieta, Ehunmilak lasterketako ibilbide osoa egin zuten urriaren amaieran. Gorka Azkaratek ez du parte hartuko Ehunmilak-en.

genuen. Gaur luzea izan zen. Urriko azkeneko asteburua izan zen.

Gorka: Eguraldi txarra egin zigun. Lehenengo gauean, euri dezente egin zigun. Nahiko giro bustia izan genuen eta hanka bustiekin hainbeste ordu!

Jaione: Bukatu, bukatu genuen. Goizeko 3ak aldera bukatu genuen eta hurrengo egunean lanera.

Zatirik gogorrena zein iruditu zitzaizuen?

Jaione: Niretzat, Lizarrustitik Etxegaretarainokoa. Gora eta behera asko dago, bukaera aldera dago... Luze egiten da.

Gorka: Bi Handiak egin dugu entrenamentu bezala, eta nahiko gogorra egiten da hori. Oso toki polita da baina berdintsua da, pagadia, gora eta behera... eta oso luzea da. 12-16 kilometro. Gogorra egiten da. Handik aurrera ere dena izango da gogorra

baina...

Jaione: Amezketatik Txindokira ere gogorra da. Bakoitza nola doanaren arabera izango da hori.

Gorka: Ibilbidea oso polita da. Leku berriak ezagutzeko balio izan digu, bestela beti, leku berdinean ibiliko ginatke. Leku ezberdinak ezagutzeko aukera eman digu.

Horrelako proba luzeetan, korrika ala oinez egiten da gehiago?

Gorka: Hain luzeetan, oinez gehiago. Goitik behera, suabe-suabe, saiitzen zara korrika pixka bat egiten, baina hainbeste ordutan aguantatzeko, suabe dago joan beharra. Batzuk joaten dira azkarrago, baina bakoitzak zein maila daukan, kontuak atera beharra dago.

100 kilometroan, Txindoki igo beharko duzue.

Gorka: Hortik ere pusketa ederra gelditzen da.

Jaione: Azkenean zer egingo dugun, ideia handirik gabe goaz. Luze egingo da.

Hurrengo egunean jai hartuko zenuten, ezta?

Jaione: Egun pare bat hartuko ditugu badaezpada ere.

Ostiralean, arratsaldeko 6etan atera eta igandeko arratsaldeko 6etan daukazu bukatzeko gehienezko epea. Igandean, bazkalterako etxera...

Gorka: Espero igandean gosaltzerako etortzea.

Gauetz korrika ere egin

Lizarraustitik Etxegaratera arteko zatia oso gogorra da.

Pagadia da, berdintsu samarra, gora beheratsua eta luze egiten da.



Elkarrekin

Lasterketa gehienak batera egiten dituzue:

Jaione: Aurtan ez gara hainbeste ibili karre-ratan, baina hala ibiltzen gara.

Entrenatu ere bai?

Jaione: Asteburuan beharbada bai entre-namendu luzetxeagoa egiteko, baina gehie-nean bakoitza bere aldetik.

Abantailarik edo desabantailarik ba al du elkarrekin korrika egiteak?

Gorka: Desabantailarik ez dut uste, eta abantailarik ere beste mundukorik ez. Bakoitzak bere hankak mugitu behar ditu. Baina kontu batzuk esateko ondo etortzen da.

Jaione: Karrera motzetan ez hainbeste, baina karrera luzeetan bakarrik egiteko ordu asko dira.

Gorka: Luze hauetan, hainbeste kilometro eta hainbeste orduan, bakarrik baldin bazoaz... tokatuko zaizu norbait, baina hainbeste ordutan denbora dezentean bakarrik joatea ere tokatu liteke.

Lagunarekin joanez gero, errazago pasatzen da.

Elkarri erritmoa hartuta egongo zarete.

Gorka: Hori ere bai.

168 kilometroan, elkar animatzeko beharra ere izango da.

Gorka: Pajarak eta denetik izango da.

Jaione: Hiru Handiak egin genuenean ere, zati batean ni joan nintzen ikaragarri gaiz-ki; beste batean Gorka...

beharko duzue. Nekagarriagoa al da?

Gorka: Alde handia dago nolako gaua den. Eguraldi ona bal-din badago eta gaua ilargiarekin argi samarra baldin badago, ondo. Behe lainoa baldin badago, argia islatu bezala egiten da eta oso gogorra egiten da.

Jaione: Urrian egin genuenean, behelainoa izan genuen eta oso nekagarria zen. Gauean logurea ere sartzen da.

Gorka: Urrian gaua ere luzeagoa zen eta orain motzagoa izan-go da. Zerikusi handia, eguraldiak dauka.

Entrenamendu bereziak egin al dituzue?

Jaione: Entrenamendu luzetxeagoak egiten saiatu gara, baina

egia esan, denbora askorik ez daukagu (bi semeren ama da Jaione).

Gorka: Asteburuak aprobeztatzuz aritu gara.

Beste erronkarik ba al duzue esku artean?

Gorka: Abuztuan, Alpeetako ultratraila egingo dugu, Mont Blanc beharko dute. Abuztuaren 28an izango da.

Jaione: Beharbada Beasaingoa egin eta gogorik gabe geldituko gara. Baina karrera horretan parte hartzeko beste karrera batzuetan parte hartu eta puntuak lortu behar dira eta aurtan puntuak bagenituenez, izena eman genuen. Puntuez gain, zoz-keta egiten eta tokatu egin zitzaigun.


SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zka. 649 RPS: 223/07



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

over Urraki
Bidaietan adituak

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es

ONEIRICO
(estudio)

Barne Diseinua - Stand
Produktua - Eszenografia

+ 34 687 413 379
info@oneiricoestudio.com
www.oneiricoestudio.com

Elena Calvillo eta Mikel Mujika senar-emazteak Goierriko Bi handiak: ondo bukatzea helburu

Elena Calvillok eta Mikel Mujikak Goierriko Bi Handiak lasterketa izango dute hurrengo erronka. Gaueko 11etan Beasaindik atera, eta aurreikusten dutenez, 15-16 ordu beharko dituzte berriz ere Beasaina itzultzeko. 88 km egin behar dituzte eta punturik gogorrenak, honakoak izango direla aurreikusten dute: "Otzaurretik aterpetxera, Txindoki, Lizarrustitik Etxegaratera, eta Liernitik Beasaina ere gogorra egingo da", diote. Bazkaltzerako etxean izatea espero dute.

Helburua zein duzue?

Mikel: Helburua, bukatzea.

Elena: Ondo bukatzea.

Mikel: 15-16 orduan egiten badugu, ondo.

Elena: Hainbeste ordu eta lorik egin gabe, ez dakit gorputzak nola erantzun duen. Hornidura postuetan gelditu eta jatea garrantzitsua izango da.

Mikel: Indarrak ondo neurtu eta ondo jan beharko da.

Ibilbidea ezagutzen al duzue?

Elena: Ibilbidea bi zatitan egin dugu: Beasaindik Lizarraustira eta Lizarraustitik Beasaina. Osoa ez dugu egin. Egunez. Oraindik ez dakit zer den gauez korrika egitea. Ez dugu gauez batere entrenatu.

Mikel: Nik ere ez dakit. Gau batean korrika egin behar genuenean, ekaitzak izan ziren eta ez ginen atera.

Zein itxura hartu diozue?

Mikel: Luzea!

Elena: Lehenengo aldia da hain luzea egingo duguna. Ikusteko dago.

Maratoi baten bikoitza baino gehiago da.

Mikel: Desberdina da. Nik uste dut, hemen, lasai-lasai atera behar dela, oinez bezala.

Elena: Hasieran behintzat gehiago zainduz. Lehenengo erdian, indarrak gorde egin beharko dira.

Mikel: Azkeneko zatia oso gogorra egiten da: Liernitik hona, oso gogorra egiten da.

Elena: Española deitzen dioten alde hori itsusixegoa da; eta aldapa batzuk ere badituzu goraka.

Mikel: Niretzat politena, Aralar da. Gauez pasatuko dugu eta polita izango da. Nik uste dut Txindokitik, goizeko 2ak aldera pasatuko garela. Eguraldi onarekin ondo, baina txarrarekin...

Elena: Aurten gainera karrera gehienak lokaztuta izan dira: Aizkorrikoa, Txindokikoa, Arratzu... Uztaila izanda, espero dugu lokatzarik ez edukitzea.



Elena Calvillo, punta-puntan

"Kateatuta" daudela onartzen dute Elena Calvillok eta Mikel Mujikak. Ahalik eta lasterketa gehienetara joaten dira. "Orain urte batzuk ez nuen esango horrela ibiliko nintzenik", dio Elenak. Beasainen bizi den ordiziarraren kasua, gainera, emakumezkoen mailan, punta-puntan dabilen korrikalaria da. Euskadiko Kopan, bai lasterketa bertikaletan bai mendiko lasterketan, emakumezko beterranoen mailan, lehenengo postuan dugu Elena Calvillo. Irailean izango dira azkeneko bi probak: bertikalean, Beriaingo igoera, irailaren 19an eta mendi lasterketan, Olazti-Urba, irailaren 25ean.

Hasi eta ezin geratu

Elena Calvillo orain dela 5 urte hasi zen korrika. Txikitan eskola garaian egiten nuen kirola. Ordiziakoa da eta errugbi taldean ere ibilitakoa da. Baina eskolen arteko lehiatik kanpo, lehiaketetan ibili gabea. "Ezkundu eta familia edukita, umeak txikiak ziren bitartean, ia ez nuen ezer ere egin. Seme txikiena igerilekuan uzten nuen eta astean bitan joaten zenean, korrika egiten hasi nintzen Maixabelekin, futbol zelaia bueltak ematen. Josetxo Imaz karrera egitera animatu nintzen. Maixabelek esan zidan ea hurrengo urtean zergatik ez genuen Behobia egiten. Eta halaxe egin genuen. Eta hortik gainerako guztiak..."

**Mikel Mujika, Elena Calvillo,
Martin Irizar, Jose Ignazio Agirre
eta Iñaki Amundarain
taldean joango dira.
Bukatutakoan, gauerako afaria
antolatua dute.**



Alper pixka batekin edo gogoarekin?

Elena: Ni, gogoarekin. Beste esperientzia bat da eta ondo. Bi Handiak eginda atsedentxo bat hartuko dugu uztail bukaeran.

Irailerako atsedena hartuta beraz.

Elena: Bai, irailean, Euskadiko Kopako Beriaingo igoera gelditzen zaigu. Olazti-Urbasa ere izango dugu irailean.

Trail, maratoiak, bertikalak... Karrera mota guztiak probatzen ari zarete.

Mikel: Nik ez dut bertikalak egiten.

Hurrengoa, chunmilak?

Elena: Nik ez dut ezetzik esaten. Aurten proba egin eta ikusiko dugu nola ateratzen den. Gertatzen dena da, entrenamentu luzeak eskatzen dituela, 4-5 ordutako entrenamenduak. Asteazkenean ez daukazu denbora hori.

Mikel: Astebukaeretan hartu behar.

Elena: Baina nik astebukaera batzuetan lana egiten dut eta karrerak ere egoten dira. Luzeena entrenatzeko denbora gutxiago daukagu.

Tentagarria al da?

Elena: Bai!

Mikel: Ez dakit ba oso tentagarria ote den! Niretzat motza ere gogorra egingo da. Jendea nola ateratzen denaren arabera, gogorra izango da.

Elena: Gure kasuan, onena da, taldean goazela. Gu biok eta Martin Irizar, Jose Ignacio Agirre, eta Iñaki Amundarain. Elkarrekin ateratzeko asmoa daukagu.

Mikel: Gaur pasatzeko ere hobeto taldean joatea. Hobeto ikusiko dugu.

Elena: Taldean errazago egiten da.

Emakumezko bakarra zara Elena eta ondo zainduko zaituzte.

Elena: Egia esanda, jendea gainean izaten dut beti. Mikelek,

Maratoi zaleak

Mendiko eta errepideko lasterketak egiten dituzte Calvillok eta Mujikak. Mikelek errepidean ibili da gehiago, baina orain gero eta gusturago dabil mendian. Elenari, asfaltoa eta mendia konbinatzea gustatzen zaio. "Neguan mendi partean zailagoa da mendian ibiltzea eta errepidea ondo dago. Udaberri aldean, mendian hobeto. Hankentzat eta buruarentzat ere ondo etortzen da aldaketa", dio Elenak. Behobia eta Donostiako maratokia egiteko asmoa ere badute udazkenean. Luzerari dagokionean, biek, distantzia luzeak, maratoiak dituzte gogoko. Mikelek, errepideko maratokia; Elenak, mendiko maratokia.

lesio bategatik, Aizkorri utzi egin behar izan zuen eta berehala Lake nirekin jarri zen. Laguntasuna da dena.

Lo egiteko asmorik ba al daukazue?

Elena: Nik ez behintzat.

Mikel: Ez.

Lasterketa gehienetan elkarrekin aritzen zarete.

Mikel: Aurten Parisko maratokia bakarrik egin dut. Besteak, elkarrekin. Ni lasaiago ibiltzen naiz, lasaiago hartzen dut eta.

Elena: nNire erritmoan erosoago ibiltzen da. Garrantzitsuenak, gozatzea da. Taldean joanda, gehiago gozatzen da. Jende berria ezagutzen duzu, lagun berriak egiten dituzu... hori da niretzat garrantzitsuenetarikoa. Kanpoko jendea ere ezagutzen da. Eta ondo ikusten bazara, horrek ere motibatu egiten zaitu.

Mikel: Entrenatzeko ere, elkarrekin arituta, aitzakiarik ez, errazago entrenatzen da.



Segurako pasabide ezkutua

Zurbano kaletik Kale Nagusira doan karkaba berreskuratu da

Bi etxadiren tartean dagoen espazioa da karkaba. Garai batean, baratzeak, lorategia, animaliak edukitzeko lekua zen espazioa zena, mendeetan zehar, hirigintza presioaren ondorioz estutuz joan diren pasabide estuak bihurtu dira karkabak.

Segura altxor ugari dituen herria da eta altxor bat gehiago berreskuratu dute segurarrak, Aranzadi Zientzia Elkartearen laguntzarekin: karkaba. Euskal Herrian dagoen karkaba bakarrenetarikoa Segurakoa. Erdi Aroko hiriak, hirigintza, garai aldaketak... ulertzeko aukera ematen du karkabak, Aranzadiko Alfredo Morazak adierazi digunez. Segurako Udaletxekoak gus-tura dira: "Euskal Herrian mantetzen diren karkaba gutxietako bat denez, bertakoei eta bisitariei erdi arora bueltatu eta garaiko bizimodua hobeto ulertzen eta gozatzen erakutsiko dien produktu turistiko-kulturala izango da".

Karkaba bat baino gehiago dago Seguran baina ondorena kontserbatzen den zatia, Zurbano kalearen eta Kale Nagusiaren artean dagoena da, zehatzago esateko, San Juan plazaren eta bolalekuaren artekoa. 1,40 eta 1,80 arteko zabalerako pasabide estua da gaur egun.

Erdi Aroko hiri egitura

Erdi Aroko herrien berezitasun nagusia, eraikuntzen egitura trinkoa da. Etxadiek kale aldetik izango dute sarrera; atzealdetik berriz, kale paraleloarekin muga egingo du. "Batez ere, Erdi Aroan sortutako hiribilduekin lotuta daude karkabak. Euskal Herrian eta beste tokietan ere bai. Bi etxadien arteko tartea da. Hiribilduak sortzerakoan, atzeko espazio hau, etxadiak banatzeko nahiko espazio zabala izaten zen. Atzealdeko eremua bat. Ez da jendea pasatzeko eremu bat", zehaztu du Morazak.

Hiribilduak sortu zirenean, karkabak, gune zabalagoak izaten ziren, "presio urbanistikoa askoz ere txikiagoa zelako. Karkaban, lorategia, baratza, animaliak, txerriak, oiloak... edukitzen zituzten, errementaria... etxearen osagarria izaten zen. Baina Erdi Arotik aurrera, presio urbanistikoa gero eta handiagoa izaten da. Gero eta jende gehiago bizi da hiribilduetan. Orduan, lur zati hori gero eta estuagoa izango da. Eraikuntza handiagoak behar dira. Beraz, solairu bateko etxeak zirenak bi eta hiru pisukoak izaten hasten dira, altueran irabazten. Baita ere, terrenoa irabazten hasten dira, bai kalera begira, boladi-zoekin. Gero eta estuagoak eta ilunagoak bihurtuko dira kaleak. Atzealdera ere hazten dira etxeak. Baratza zuen lursail libre horretan, urbanizatu-ko zuten. "Jendea saiatu da terreno publikoak aprobetxatzen", gaineratu du Aranzadikoak.

Estutu eta estutu

Ondorioz, bi etxadien artean, atzealde hori, pasabide estu bat bilakatzen da. Morazak zehaztu duenez, "Segurako kasuan, XV.-XVI. mendean, pasillo horiek definituta daude. Zenbait momentutan, pasillo horren gainean urbanizatzea lortzen dute, edo pasillo hori okupatzea. Seguraren kasuan, berezitasuna da, pasillo hori bizirik egotea lortu duela. Beste hiribilduetan, Ordizian eta Tolosan adibidez, eraikuntzak zabaldu dira karkabara eta desagertu egin dira karkabak. Seguran, zati batzuetan erabat desagertu



Pasabidean barneratzeko aukera

Urteetan eta mendeetan Segurak eta segurarrak eutsi dioten karkaba zaharberritzeak Segurako herrigune historikoari balio erantsia emango dio. "Obra honen helburu nagusia hiriguneko hirigintzaren ezkutuko ezaugarri nagusiak kanporatu eta merezitako balorea ematea da. Seguran eutsi egin zaio eta orain berreskuratu egin da hori azpimarragarria da", dio Alfredo Morazak.

Etxadien arteko pasabidea ez da erabilera publikokoa izaten, dena den, segurarrak eta Segurara datozenek, karkaba ikusteko eta bizitzeko aukera izango dute. Uztailaren 16an inaguratuko dute eta Segurako udaletxetik aurreratu duenez, bisita gidatuak antolatuko dira Turismo Bulegotik. "Gasteizen programa bat egiten hasi dira, karkaba berreskuratze baina ez da bisitatzeko aukerarik izango. Segurako kasuan, Euskal Herrian, lehenengo aldiz, berreskuratu da eta ikusgai jarriko da, Erdi Aroa hobeto ulertzeko" gaineratu du Morazak.

Segurako karkaba:

Euskal Herrian, lehenengo aldiz, karkaba bat berreskuratu eta ikusgai egongo da.



1992an lehenengo antzezlanak taularatu zuen
Ordiziako Urrup taldeak

Goierriko antzerki eskola

ALDANONDO GARAJEA
MICHELIN zerbitzu ofiziala

**Gurpil lanak,
alineazioa,
aluminiozko llantak**

**Filtroak, olioak,
engrasea**

**Frenu pastilak, tubo
eskapeak, bateriak**

Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

NELSON BARBOSA
ERREFORMAK

Gremioen koordinazioa

tel.: 687 837 011 Unzurruzaga, 9 behea **SEGURA**

PSIKOLOGI KLINIKOA

Argi Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 42001

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

**Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak**

Ordiziako institutuan lehenengo urratsak eman ondoren, 1991. urtean, Urrup antzerki taldea sortu zuten. Urtebetera, lehenengo obra taularatu zuten. Hasierako urteetan zuzendaririk gabe aritu baziren ere, 1994. urtean Rosa Rojo zuzendaria etorri zen taldera. Ordiziako jaien atariko gisa, obra berria estreinatu izan dute Urrupekoek. Oraingoan, estrenurik ez, baina 'Aquí no paga nadie'-ren azkeneko pasea eskainiko dute.

Uztailaren 16ko antzerki emanaldirako entsaiatzen harrapatu ditugu Urrup antzerki taldekoak. Aurten estreinurik izango ez dutenez, lasai, estreinu baten aurreko urduritasunik gabe harrapatu ditugu. Horren lekuko da, taldekide batek baino gehiagok huts egitea.

Urtero, Ordiziako festen atariko gisa, obra berria estreinatzen badute ere, aurtentzen ez da horrela izango. Dario Foren 'Aquí no paga nadie' antzezlanaren azkeneko pasea egingo baitute. Obrak berak izan duen arrakastarekin batera, bi taldekidiren amatasuna dela eta, obra berriaren estrenua, udazkenerako utzi dute.

Aurreratzeko moduan gara: Juan Jose Alonso Millanen 'El cianuro con café o con leche' lana ari dira pres-



Dario Fo ren 'Aquí no paga nadie'

Uztailaren 16an, gaueko 10etan, Herri Antzokian 'Aquí no paga nadie' antzezlanaren azkeneko saioa eskainiko du Urrup antzerki taldeak. Jarraian duzue protagonisten zerrenda. Antonia: Marisol Caveró. Margarita: Arrate Leunda. Juan: Jose Luis Elorza. Luis: Iñaki Albisua. Ikuskaria: Felix Flores. Brigada: Ekain Auzmendi. Ehorztetxeko langilea: Martín Etxebarria. Amona: Josune Martín. Noemi: Josune Azurmendi. Diseinu grafikoa: Eukene Lekuona. Soinua eta argiztapena: Irati Susperregi. Eszenografia: Ibai Maritxalar. Laguntza artistikoa: Sara Cozar. Moldaketa: Felix Flores. Zuzendaria: Rosa Rojo.

tatzen. "Umore beltza", aurreratu du Rosa Rojo, Urrup antzerki taldeko zuzendariak.

Antzezlanak aukeratzeko garaian, taldekide kopurua, zenbat neska eta zenbat mutil, kontuan hartzea beharrezkoa denez, zailtasuna izaten dute askotan Urrupekoek, batzuk joan besteak etorri, ez baita da talde oso egonkorra.

"Mugimendu handia dago, zaila da jendeak jarraitzea eta meritua taldeak hainbeste urte irautea. Belaunaldi ezberdinetako aktoreak gaude". Dena den, taldeari egorkotasuna ematen diotenak badaude. Beteranoenak, Marisol Caveró eta Arrate Leunda dira. Taldearen sorreran eurek hartu zuten parte. Amak dira biak, baina beraientzat ihes-balbula da ostiralero antzerki entseitura joatea. "Asteko martxa mozte-

ko aitzakia polita da antzerkia. Tentsio guztiak botatzen ditugu", diote. Caveró eta Leunda izan dira, Rosa Rojo zuzendariarekin batera, taldearen errepasoa egin dutenak.

18 urte

1991. urtean sortu zen Urrup antzerki taldea. 1992. urtean egin zuen lehenengo antzez-lana. "Marisol, Institutuan hasi zen antzerkian. Institututik atera eta ikasketak bukatu ondoren, Urrup sortu genuen. Zuzendaririk ez geneukan. Urte polita izan zen, lagun

giro ona zegoen. Zuzendaririk gabe egin genuen obra bat. Marisolen anaia ibili zen, baina hil egin zen. Urtebete ezer ere egin gabe egon ginen, eta batzuk utzi egin zuten.", gogoratu du Arrate Leundak.

Ondo gogoan dute lehenengo obra hura: Juan Jose Alonso Millanen 'Cuéntalo tu, que tienes más gracia'. Caveró eta Leundak aitortu digutenez, badaukate berreskuratzeko gogo. "Ondo legoke 20 urte betetzen ditugunean berreskuratzea". 1993.

Mugimendu handia dago, zaila da jendeak jarraitzea eta meritua taldeak hainbeste urte irautea.

urtean, Ordiziako Jakintza Ikastolak antolatu zuen Kilometroak-erako antzezlan bat egin zuten.

Rosa Rojo

1994. urtean, beste aurrera-pauso bat eman zuen Urrupek, Rosa Rojo, zuzendarri lanean hasi baitzen. Harrezkeroztik, urtero, obra bat estreinatu dute. "Amateurrak gara baina askotan esan izan digute profesionalak ematen dugula", dio Rosa Rojok, bere taldeaz harro. Azkeneko obrarekin gainera, batean eta bestean ibili dira eta oso ohikoa ez den arren, antzokiak bete samar izan dira. Antzerki amateurren merkatua nola dagoen galdetuta, Urrupekoek ez omen dute marketing-erako tarte gehiegirik hartzen. "Inguruko herrietan mugitzen gara. Beasainen, Lazkaon, Ataunen, Ormaiztegin, Zegaman, Ikaztegieta, Tolosan, Sorluzen... antzeztu izan dugu. Dena den, azpigiatura aldetik ez dago leku aproposagirik Goierrin", diote Urrupekoek.

Lokala

Azpigiatura kontuez ari gara, ia 18 urte behar izan ditu Urrup antzerki taldeak, entseietarako lokala lortzeko. Milagrosa ikastetxe zaharrean, entsaiatzeko eta materiala gordetzeko lekua lortu dute, nahiz eta "baldintzarik oneneko lokala ez izan". "Aurretik Urdaneta ikastetxean entsaiatzen genuen, eta

oso ondo portatu dira gurekin. Baina geure gauzak gordetzeko lekurik ez geneukan eta gauza asko galdu egin zaizkigu bidean. Orain beintzat, dekoratuak, arropak, materiala... gordetzeko lekua badaukagu".

Lan ezberdinak

Urte askotako historia biltzen da Milagrosako ikastetxe zaharreko lokalean. Egin dituzten lan ezberdinen lekukotasunak nonahi daude. Kartelak, objektuak, jantziak... Dekoratuak ere beraiek prestatzen dituzte, nahiz eta batzuetan enkarguz ere egiten dizkieten.

Urrupekoek eurek ere, enkarguz lan ezberdinak egin izan dituzte. Umeentzat, jubilatuentzat, martxoaren 8an Emakumezkoen egunerako... "Zerbitzu publikoa ere eskaintzen dute", dio Rosa Rojok. Hori bai, kexa bat badute: "askotan, denbora gutxiagirekin jasotzen ditugu enkarguak".

Euskara

Euskaraz nahzi gazteleraz antzezten dute. Dena den, Arrate Leundak euskarazko lanak aukeratzeko dituzten zailtasunak aipatu dizkigu. "Obra aurkitu behar da. Normalean nahiko berandu ibiltzen gara. Urtero jende berria edo desberdina daukagu. Zenbat neska, zenbat mutil... taldeari egokitutako obra aurkitu behar da. Eta gero, itzuli egin behar da, itzulpenak ere ez daukagu



Goierriko Antzerki eskola

Antzerkia gustuko dutenen topaleku eta eskola izan da eta da Urrup antzerki eskola. Sara Cozar, Erea Lopez, Gorka eta Garikoitz Lariz, Maider Bartolomé... "Askorentzat hasiera izan da. Sara Cozarrek beti esaten du, hemen hasi zela. Batxilergoan ari diren ikasleak etortzen dira, Arte Dramatikoa egingo dutenaren zailtasunarekin eta Urrupen probatzen dute. Adibidez, Erea Lopez Madrilen ikasten ari da eta antzerkian dabil lanean", dio Marisol Caverok. Euskal Telebistako Goenkale saioan, adibidez, azkenaldian, Jose Luis Elorza ere ikus dezakegu. Sara Cozarrek gain, Felix, Garikoitz eta Gorka Lariz ere azaldu izan dira. Gehienek zaletasuna dute gehienek, baina ogibidea dutenak ere bat baino gehiago dira.

Marisol Caverok inbidiaz begiratzen diete Arte Dramatikoaren bidea aukeratzeko duten gazteei. "Gazte nintzela, ikasketak aukeratzeko garaian, gurasoek ez zidaten uzten Madrida joaten, Arte Dramatikoa ikastera. Ikastaro ezberdinak egin ditut. Aukeraren bat izanez gero, helduko nioke serio".

asko. Itzultzeko lan horretan, denbora asko galtzen dugu. Atzetik ere ez daukagu inor hurrengo obra prestatuko digunik. Itzulpena ere zaila da, txukuna behar izaten da, eta zaila izaten da".

Adibidez, umeentzako egin zuten lan bat, 'Jostailuak

kutxan', oso gogoan dute Arrate Leundak eta Marisol Caverok. Marisolentzat, egin duten politena. "Testua euskaratu genuen, musika ere Jose Luisek sortu zuen... geure-geure lana izan zen". Haurrentzako ere beste antzezlanen bat prestatzeko

- Aroztegia
- Altzariak neurrira
- PVC, aluminio eta egurrezko lehioak

Katea, 5 -Antzizar auzoa - BEASAIN
Tel.: 943 16 40 40 / 639 631 640 Faxa: 943 16 47 47
www.mueblesibaiondo.com

"Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobekak"

K. Nagusia 35 BEASAIN
☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO
☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA
☎ 943 16 00 44

☎ 943 88 77 58

☎ 943 88 72 79

☎ 943 16 00 44

Ezkio Itsaso

Alegian Madalena jaiak

Uztailak 22, osteguna: Madalena eguna:

12:00etan: Meza Nagusia.

Ondoren: Gabiriko Goruntz dantza taldearen ekitaldia.

Jarraian: Hamaiketakoa.

16:30ean: Umeetako ekintzak: quads pista, puzgarriak, goxokiak...

Gaeen: Joselu Anaiak taldearen dantzaldia.

Uztailak 23, ostirala:

19:30ean: Sagardo festa: sagardo dastatzea, pintxoak eta oilaskoa afaltzeko.

21:00etan: Dantzaki taldearen dantza erakustaldia: salsa, pasodoblea, tangoa...

Arratsaldean eta gau partean: Joselu Anaiak taldearen dantzaldia.

Uztailak 24, larunbata:

21:00etan: Herri afaria.

Ondoren: Trikitixarekin dantzaldia.

Gabiria

Aztirian Santa Marina jaiak

Uztailak 16, ostirala:

18:00etan: Kanpai joaldia eta suziri jaurtiketa.

18:30ean: Neska, mutiko eta gaztetxoentzat jokoak eta txokolate jana.

19:00etan: Bola eta toka lehiaketak auzotarrentzat.

21:00etan: Auzo afaria, Benta Lehor jatetxean, Elustondo trikitilariarekin.

Uztailak 17, larunbata:

11:30ean: V. helduen eta gazteen arteko futbol partida, Gainzabal zelaian.

Ondoren: Indarrak berreskuratzeko, poteo herrikoia.

18:00etan: Aztiriko XV. Patata tortilla lehiaketa. Ondoren, pintxo eta ardo banaketa izango da.

19:00etan: Bola eta toka lehiaketak. Arratsalde osoan trikitilariak ibiliko dira.

23:00etan: Elustondo trikitilarien erromeria.

Uztailak 18, igandea:

10:00etan: Goiz eresia, Gabiriko txistulariekin.

10:45ean: Gabiriko Udaleko kideei ongi etorria.

11:00etan: Meza Nagusia.

Ondoren: Auzoko nagusienari omenaldia eskainiko zaio.

11:00etan: Aztiriko VI. mendi lasterketa.

12:30ean: Gabiriko Goruntz dantza taldearen saioa.

13:00etan: Katin eta Eguskitza trikitilariak alaiturik mendi lasterketaren sari banaketa.

18:00etan: Trikitilariak kioskoan arituko dira.

18:30ean: Herri kirol erakustaldia: Joxe Ugarteburu eta Ruben Saralegi gaztea aizkoran; eta Migeltxo Saralegi harri jasotzen.

19:00etan: Gipuzkoako bola txapelketa.

Lazkao

Udako ikastaroetako kultur ekitaldiak

Uztailak 15, osteguna:

22:00etan: Drindots musika-taldea. Plazan.

Uztailak 22, osteguna:

22:00etan: Bide Ertzean musika-taldea. Plazan.

Uztailak 27, asteartea:

22:00etan: Kale-antzerkia: Atikus taldearen 'Homo Sapiensaren gainbehera'. Plazan.

Uztailak 29, osteguna:

18:00etan: Trikitibertsopoteoa: Endika Igartzabal eta Gorka Maiz bertsolariak eta Joseba Iztueta eta Iban Maiz trikitilariak. Lazkaoko tabernetan hasi eta Maizpideko jangelan bukatuko da.

Abuztuak 4, asteazkena:

21:30ean: Biderditan: Koldo Amestoy ipuin-kontalaria, Maizpideko zinema-aretoa.

Abuztuak 19, osteguna:

21:30ean: Bertso-trama: Igor Elortza, Jon Maia, Aitor Sarriegi eta Maialen Lujanbio; tramagilea: Josu Goikoetxea. Maizpideko zinema-aretoa.

Abuztuak 26, osteguna:

20:00etan: Dani Oiarbide eta Pello Urdangarin trikitilariak, Maizpideko jangelan.

Beasain

Marrazketa ikastaroa

Irailaren 2tik 29ra bitartean, modelo naturalak erabiliz marrazketa ikastaroa antolatu du Bear Pintura Zaleuen elkarteak. Astearteetan eta ostegunetan izango da, 18:00etatik 20:00etara, Beasaingo Urbietako arte plastikoetako zentroan. Plaza mugatuak izango dira. Izena emateko eta informazio gehiagorako, ondorengo telefono zenbaki honetara deitu behar da: 653 705 000.

Segura



Gure erroetan murgilduz

Mendeetan atzera egiteko aukera izango da asteburuan, Segurako atariak eskaintzen dizuten eszenatoki paregabeaz baliatuz. Atariz atari: 1. Zerrailategia; 2. Gari biltegia; 3. Gari tresneria; 4. Albarkagilea eta Plaza Zaharreko ostatua; 5. Iltzegilea; 6. Sutegia; 7. Gari txokoa, gari jorratzearen erakusketa; 8. Interpretazio zentroa; 9. Ehorzeria; 10. Ehulegilea; 11. Eskaletxokoa; 12. Lihogintza; 13. Gaztagilea; 14. Aroztegia; 15. Pelota egilea; 16. Eskribaua; 17. Latin eskola; 18. Ospitalea; 19. Okindegia; 20. Bolatokia; 21. Inkisizioa; 22. Sorgin plaza; 23. Saskigilea; 24. Hargina; 25. Noblezia. 26. Ikulua; 27. Ile eta pentsu biltegia; 28. Hegazti eta abereen azoka; 29. Zapataria; 30. Erlezaina; 31. Sendabelarrak eta mailegu emaila; 32. Gozotegia; 33. Zeramika; 34. Larraitoki eta Erdi Aroko afaria; 35. Ostatua.

Uztailak 17, larunbata:

16:00etan: Atari irekiera udaletxean, noblezi eta dultzaineroen kalejirarekin. **Kale animazioak:** Bandoa, zaldunak, istorio kontalariak, umeen jolasak plazan, eskuz gari jotzea plaza zaharrean eta herriko txistulariak.

Arratsaldean: Herritarren errogatibak, Segurako abesbatza-ren laguntzarekin.

22:00etan: Erdi Aroko afaria. Txalaparta kontzertuarekin hasiera emango zaio.

Uztailak 18, igandea:

10:30ean: Atari irekiera udaletxean, noblezi eta dultzaineroen kalejirarekin. **Kale animazioak:** Bandoa, zaldunak, istorio kontalariak, umeen jolasak plazan, eskuz gari jotzea plaza zaharrean eta herriko txistulariak.

12:00etan: Donejakue bideko erromesei ongi etorria beheko gurutzean.

18:30ean: Atarien itxiera eta kale garbiketa.

R.P.S. N° 149/10 LLG.

ZEUK AUKERATU

betaurreko graduatuekin
DOAN
eguzkitako graduatuak

eguzkitako
betaurreko graduatuak
57€

graduatuak
eguzkitako lenteak
35€

markako eguzkitako
betaurrekoekin
DOAN
eguzkitako betaurrekoak

Esaintza hau baliagarria izango da 2010/05/01etik 2010/08/31era arte. Esaintzak ezingo dira pilatu euren artean edo beste promozio batzuekin.

J.M. Barandiaran Enp.
Tel.: 943 88 99 88
ORDIZIA

MULTIÓPTICAS
lehenengoa zerbitzu optikoetan

Idiazabal

San Inazio jaiak

Uztailak 30, ostirala:

18:00etan: Aizkora erakustaldia.

Ondoren: Sagardo dastaketa.

24:00etan: Basurde txiki harrapaketa.

01:30ean: Musika taldea.

Uztailak 31, larunbata:

12:00etan: Meza San Inazio ermitan. Ondoren hamaiketako eskainiko du Udalak.

15:00etan: Mus txapelketa.

16:00etan: Haurrentzako ekitaldia.

17:00etan: Asto karrera.

21:00etan: Bertso afaria.

01:30ean: Unsain anaiak musika taldea.

Beste musikak: Iñigo Agirre eta Nerea Erbiti

Uztailaren 16an, iluntzeko 8etan, herriko plazan, Beste musikak kontzertuen barruan, Iñigo Agirre eta Nerea Erbitiren txanda izango da. 'Gitarra eta ahots fantasia euskal kulturaren inguruan' lana aurkeztuko dute. Emanaldi honek musika klasikoaren eta jazzaren arteko lotura erakutsiko digu, Mikel Laboa, Imanol, Juan Carlos Perez eta beste hainbat kantautoreen kantuen gaineko fantasietan bat egiten baitute, gitarra klasikoak eta ahots inprobisatuak protagonista indibidual bihurtzen direla, eta armonia berrietan nahasi eta galduz.

Zerain

Andra Mari jaiak

Abuztuak 13, ostirala:

18:00etan: Herritarren I. pilota txapelketako finalerdiak plazako frontoi txikian

20:00etan: ohiko gibel-jatea Liztormendi Elkartean

Abuztuak 14, larunbata: umeen eguna:

11:00etatik aurrera, eta egun osoan zehar, puzgarriak plazan.

13:30ean: Haur bazkaria Ostatuan.

13:00etan: Jaialdia (mozorroak, playback...)

16:00etan: Haur jolasak. Ondoren merienda eta buruhandiak.

20:00etan: Pregoia, suziriak eta kanpai-bueltakoak festei hasiera emateko.

Segidan: Sagardo-edatea eta txekor jana (txekorra egun guztian zehar burruntzian erretzen egongo da).

23:00etan: Erromeria Trakets taldearekin.

Abuztuak 15, igandea: Andra Mari eguna:

09:00etan: Txistularien goiz-eresia etxez-etxe.

10:00etatik aurrera, Andra Mari bola txapelketaren hasiera.

11:00etan: Meza Nagusia.

11:30etan: Herritarren I. pilota txapelketako finala herriko plazako frontoi txikian

12:30ean: Txakolin dastatzea

17:00etan: Bola txapelketaren bigarren saioa.

18:00etan: Herri kirolak.

19:00etan: 40 urtetik gorakoen VI. dantza suelta txapelketa.

20:00etan: Trikipotea.

21:00etan: Gazte afaria (Tikeak Mandio dendan salgai)

23:00etan: Erromeria Zesuma taldearekin.

01:00ean: Asto lasterketa.

Ondoren: erromeria goizalde arte.

Abuztuak 16, astelehena: San Roke eguna:

09:00etan: Txistularien goiz-eresia etxez etxe.

10:00etan: San Roke bola txapelketaren hasiera. Izenematea 9:30etatik aurrera.

11:30ean: Meza Nagusia.

Ondoren: Herriko agintarien soka dantza.

13:00etan: Herriko artzainek egindako Idiazabal Gazta dastatzea ardoarekin.

17:00etan: Bola txapelketaren azken saioa.

17:30ean: Herriko gaztetxoan pilota partidak.

20:30ean: Herri afaria bertsolariekin.

Ondoren: Dantzaldia Alaiki taldearekin goizalde arte.

Abuztuak 17, asteartea:

15:30ean: Herri txukuntzea.

Zegama

'Zegama, atzoko arnasa gaurko bisitza'

Uztailaren 23an, gaueko 10etan, 'Zegama, atzoko arnasa gaurko bisitza' ikus-entzunezkoaren 2. atalaren proiektzioa izango da, Joxe Mari Artolaren eskutik. Udaletxeko arkupeetan izango da emanaldia.

Ordizia

Ordiziako azokara bisita gidatuak

Uda partean, abuztuaren 25era bitartean, Ordiziako azoka bisitatzeko bisita gidatuak antolatu ditu D'Elikatuzek. Goizeko 10etatik 11etara bitartean izango da. Bertan parte hartu nahi duenak, D'Elikatuz zentrorra joan beharko du. Dohainik izango dira bisita gidatuak.

Zerain

I. Pilota txapelketa

Herriko gaztetxoek ekimenez eta Oa kultur elkartearen laguntzaz, aurtengo udan plazako frontoi txikian herritarren arteko I. pelota txapelketa jokatu da. Herriko haur, gazte naiz helduek parte har dezaten antolatu da lehen aldiz txapelketa hau. Uztailean zehar egingo da ligaxka, finalerdiak abuztuaren 13an jokatu dira, eta finala andramari eguerdian.

Ataun

Organo kontzertua

Nazioarteko Organo Barrokoaren jaialdiaren barruan, azkeneko kontzertua izango da uztailaren 17an. Adam Viktoria organojolea eta Gabriela Eibenova sopranoa izango dira. Ordua eta lekua, ohikoak: Ataungo San Martin Elizan, iluntzeko 8etan.

Goierri

Uztailaren 31n,
San Inazio jaia Urban

Arabako eta Gipuzkoako Partzuegoek antolatuta, Urbiako landetan, San Inazio Egunean, artzainen eta mendizaleen ohiko jaia ospatzen da. Jarraian duzue egitaraua:

Uztailak 31, larunbata:

11:30etan: Baselizan, Meza Nagusia. Elizkizunean bertsolariak arituko dira, santuari inguruko artzainen eta mendizaleen aldeko ohizko ofrenda eta eskaerak egingo diotelarik.

12:30etan: Lunch herrikoia, txorixo, ogia eta ardoarekin.

Ondoren: Herri Kirol lehiaketa eta Korrika lasterketa.

Egun guztian zehar trikitilariak arituko dira giroa animatzen.

Ikaskide
 irakaskuntza eta pedagogia
www.ikaskide.net

UDA 2010
LEHEN HEZKUNTZA, DBH, BATXILERGOA:
 Errepasoa, errekupeazioak, datorren kurtsorako prestakuntza
UNIBERTSITATE MAILA (MU): Errekuperazioak, prestakuntza
MEKANOGRAFIA: Ikastaro trinkoa
TAILERRAK: Irakurmena, idazmena, kalkuloa eta matematika
INGELERA: Ikastaro trinkoak

Informazioa eta izen ematea: Joan Iturralde, 5 solairuartera - BEASAIN
 943 160 120 - 685 722 403 - 675 006 462

Kol. zkia.: 764


Nerea Larrea Oyarbide

 Aho kirurgia
 Implantologia
 Periodontzia

 Artikulazio eta ahoko minak
 Radiologia digital zerbitzua
 Eskaner digitala

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118



Mutiloako eskolako mutikoak 1929. urte inguruan

Goiko ilaran ezkerretik eskuinera: Fernando Mendizabal (Urbizuaranzahar), Juan Goiburu (Berbategi), Prudentzio Lekuona (Lekaranzahar), Zegamako Olatxokoa, Simon Gereñu (Arginetxe, Segura), Antonio Balerdi (Oria), Daniel Murgiondo (Markaztegi), ezezaguna eta Manuel Goia (Elizaurre).

Erdiko ilaran: Joxe Telleria (Atiberhaundi), Patxi Legorburu (Gaztañabidekoa), Antonio Aldanondo (Lierniazpikoa), Pako Telleria (Atinberhaundi), Eusebio Azurmendi (Apaolazaerdikoa), Julio Merino Vilches (maisua), Bittoriano Telleria (Murgiaran), Eulogio Telleria (Murgiaran), Luis Alustiza (Lenkaran), Baldomero Lekuona (Lenkarazahar), Joxe Mari Aldasoro (Gaztañadierrota) eta Luis Iparragirre (Ugalde).

Beheko ilaran: Patxi Aldasoro (Gaztañadierrota), Bernardo Aldasoro (Troierrota), Ramon Aranburu (Sesarripa), Manuel Murgiondo (Murgiondo), maisuaren semea, maisuaren semea, ezezaguna, Urbano Alustiza (Errotatxo), Joxe Antonio Alustiza (Errotatxo), ezezaguna, Patxi Telleria (Odio) eta Alejo Telleria (Segoretxe, Liernia).

ARANDIA GARAJEA

Autoen konponketa

N-1, z/q Iurre Auzoa OLABERRIA ☎ 943 88 09 47

ZUBARA

Ereikuntzak s.l.

Promozioak, Eraikuntzak, Erreformak...

943 65 34 93 - 649 46 32 89
ABALTZISKETA

ZEGAMA OKINDEGIA

Eskuz egindako ogi naturala

Intxausti eremua, 14G-14H nabeak
☎ 943 80 10 66 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:

Beasain: Oskarbi, Osina, Natxo dietetika, Ekilore. **Ordizia:** Sabino, Muno, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viana eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Joxan harategia. **Ormaiztegui:** Inaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak, Centro 100. **Urretxu:** Dia. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo.

TAMEBI

Sagardotegia

Erretegi bezala zabalik

- * Eguneroko menuak
- * Karta zerbitzua
- * Ospakizunak
- * Plater konbinatuak

Asteburuetan menu berezia: 20 euro kafea barne

Zubierreka,9 ☎ 943 16 25 23 LAZKAO



berrikuntzak // bainuak // sukaldeak // zeramikak // hidromasajea // gremioak // proiektuak



GaziGozo

janari denda



Gazi Gozon helburu nagusia **kalitatezko zerbitzu naiz produktuak eskaintzea da**. Bertan kalitatezko nekazal elikagai eta produktuen barietate zabala aurki dezakezu jatordu on batetaz gozatzeko.

Bertako produktuak eskaintzen ditugu garaian garaiko produktuei lehenetasuna emanez eta **gure gastronomia kulturalaren alde lanean**.

Eguneroko produktu freskoez gain kontserbako produktuak ere aurki ditzazkezu produktuetik aholkularitza eskainiz. Zatoz eta proba itzazu gure produktuak.

Fruta, barazkiak, kontserba poteak, urdaitegia, ardo bereziak, esnekiak, edariak, pasta, gozoak, olioak, zumoak...

